



Lazarragaren perfektibo zaharrari lehen hurbilketa

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

| Ekaitz Santazilia. Lazarragaren perfektibo zaharrari lehen hurbilketa. 2007. <artxibo-00179192>

HAL Id: artxibo-00179192

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00179192>

Submitted on 14 Oct 2007

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

LAZARRAGAREN PERFEKTIBO ZAHARRARI LEHEN HURBILKETA



Juan Perez de Lazarragaren dorretxea Larreaan.
Iturria: Euskargazki (www.blogari.net/euskargazki)

EKAITZ SANTAZILIA
Euskara II (P. Goenaga)
Euskal Filologian Liz. 2.
UPV-EHU
ekaitz@euskalherria.info

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. AORISTOA vs. PERFEKTIBOA	3
2. LAZARRAGAREN AORISTOAN SARTUZ	4
2.1. Ezaugarri morfonologikoak	4
2.1.1. Partizipioa edo aditzoina?	4
2.1.2. Erroak	6
2.1.3. Aditz nagusia	7
2.1.4. Aditz laguntzailea	7
2.2. Erabilera	9
2.2.1. Irigoien, Krutwig eta Aldairen teoriak	9
2.2.2. Perfektibo zaharra defektiboa da	11
2.2.3. Erabilera mugatua	12
3. ONDORIOZ	13
4. BIBLIOGRAFIA	15

LAZARRAGAREN PERFEKTIBO ZAHARRARI LEHEN HURBILKETA*

EKAITZ SANTAZILIA
Euskara II (P. Goenaga)
Euskal Filologian Liz. 2.
UPV-EHU

0. SARRERA¹

Euskal Aoristoa letra larriz idatz liteke, euskalaritzaren mintzagai handietako bat izan delako. Oraingoan aoristoaz (guk perfektibo edo perfektibo zaharra deituko duguna, cf. 1.) esan dena edo pentsatu dena kontuan hartuta, aplikazio bat egin nahi dugu. Aoristoaren funtzionamendu semantiko, morfologiko eta sintaktikoaz dauden teoriak Lazarragaren eskuizkribuan nola islatzen diren ikusiko dugu, finean, eskuizkribu horretan baliatzen diren aoristoko formak nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten. Gisa berean, Lazarragarengan aurkitutako berezitasun batzuk beste autoreengan aurki ditzakegun ikusi nahi dugu, edo Lazarragaren bereizgarri diren.

Perfektiboaren barnean zeresana aditz trinko zein perifrastikoek badute ere, honetan azken hauei begiratuko diegu batik-bat, gure lana mugatze aldera.

1. AORISTOA vs. PERFEKTIBOA

Filologia guztiek, euskararenak barne, filologia klasikotik edan izan dute terminologia, lan prozedurak, sailkapenak eta abar eskuratzeko orduan, Klasikoa baita filologiarik zaharrena. Guri dagokigun atalak badu zerikusia honekin. Lantzen ari garen adizki sistemari *aoristo* deitu diete euskal hizkuntzalariek (cf. Lakarra 1996, Gaminde 1989). Lafonek aitzitik «[Verbes] avec auxiliaire a valeur déterminée» (1980:76) deitzen die, eta laburtzeko, aoristo balioa dutela esaten digu. Hitza beraz, filologia klasikotik hartua da eta grekera klasikoko aditz denbora bati deitzeko erabiltzen da.

Terminoia grekeraz ἀόριστος da eta nolabait, “indeterminatu” gisa itzul genezake, “determinatuen” (ὀρισμένος) aldean. Gauzak horrela, estoikoentzat denbora determinatuek iraupena dute denboran edo denbora horren amaiera islatzen dute, indeterminatu edo aoristikoen kasuan ordea, ez da garrantzitsua denbora hori, *ad aeternum* izan daiteke, edo hain laburra ezen momentu puntual batera mugatzen dela. (Lázaro Carreter 1968). Aoristoa hain zuzen, ez-denbora da. Definitzeko zailtasuna agerian uzten dute Lázaro Carreterrek eta Gontzal Aldaik, azken honek «perfektibo» hitza aholkatzen digularik (1998: 378), hizkuntzalaritza modernoak erabiltzen duen

*La hau UPV/EHUko Euskal Filologia karrerako P. Goenagaren *Euskara II* ikasgairako burutua izan da. Hemen aurtkezten dugun bertsoa irakasleari berari emandakoa da, izan ditzakeen hutsak zuzendu gabe daudelarik. Fite beste bertso bat eskaintzeko esperantza badut, zeinahi iruzkin eskertuko dudalarik.

¹ Mila esker Iñaki Camino, Ricardo Gómez eta Joseba Lakarrari filologiarako egiazko agor-hila den hilabete horretan emandako laguntzagatik.

terminoa baita lehen aipatu dugun puntukaritasun hori adierazteko. Gaztelaniazko *comí* batek ekintza iraganean kokatu arren, ez digu ekintza horren iraupenaren edo amaieraren berri ematen, horregatik da perfektiboa; perfektua *he comido* litzateke (Aldai 1998: 379). Grekera zaharrak, gaztelania estandarrak eta euskarak beraz, perfektua eta perfektiboa bereizten dituzten bezala, beste erromantze askotan eta latinean perfektua perfektiborantz lerratu da.

Hau ikusirik, ez du ematen beraz, *aoristo* terminoa okerra denik, baina Aldairen usteari jarraituz, lan honetan *perfektibo* hitza erabiliko dugu hizkuntzalaritza orokorrean erabiltzen diren terminoak baliatze aldera. Gaur egungo perfektiboarekin (adb: etorri nintzen) ez okertzeko baina, *perfektibo zaharra*² deituko diogu.

2. LAZARRAGAREN³ AORISTOAN SARTUZ

2.1. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Atal honetan aspektu formalari helduko diogu, PZ orokorrean eta zehazki Lazarragaren eskuizkribuan nola eratzen den ikusiko dugu. Hartzen dituen erroak, aditz laguntzailea, nagusia eta abar.

2.1.1. PARTIZIPIOA EDO ADITZOINA?

Gaur egun Erdialdeko eta Mendebaldeko euskalkietan eta gero eta gehiago Nafarroa Garaian lehen aditz oinarekin baliatzen ziren aditzak partizipioarekin ageri zaizkigu (*ikus dezaket*>*ikusi dezaket*). Formarik zaharrenak baina, aditzoina baliatzen dutenak dira, eta euskara historikoak horren berri ematen digu, Ekialdean aditzoina atxiki baitute oraino eta Mendebaldean testu zaharretan hala baitzen (cf. Lafon 1980: II 18-24). Bizkaiera zaharrean gertatutako fenomeno horren berri ematen digu esaterako Joseba Lakarrak (1986: 664), kronologia bat aipatzen digularik partizipioaren erabileraz, Bizkaieraz lehenik eta Gipuzkeraz gero. Lakarraren ustez, partizipioa sartzen hasi da XVI. mendean, eta XVII. menderako hedatua da. Ikus dezagun Lazarragaren eskuizkribuko perfektiboan zer gertatzen den:

PZko formak edo bestelakoak diren ez du eraginik, berdin aurki baitaitezke partizipioak zein aditzoinak bietan, adibideok darakusten moduan:

(1)

- a) dama ederr bat topa_ neçan / autoridadez betea (Laz 27)
- b) gachori rrepara deçadan_ / yelmo ori eronçu (Laz 47v)
- c) Silvero gueratu çidin bacoçhic (Laz 6v)

² Testua arintze aldera, PZ laburdura erabiliko dugu maiz perfektibo zaharra aipatzeko.

³ Ohartu nahi genuke, Lazarragaz mintzo garelarik eskuizkribuaz ari garela, ez inola ere pertsonaiaz. Hau da, guk eskuizkribuan agertzen diren formak bildu ditugu eta ez dugu eskuizkribu hori Lazarragak idatzi zuen, osoki idatzi zuen edo kopiatu zuen baloratu nahi, ez eta ezagutzen dugun alea kopia edo originala den. Horren inguruan ideiak izan arren, testua ongi ikertua izan arte ez dugu epairik botako. Eginen dugun bereizketa bakarra azken bi folioak Estibaliz de Sasiolari egoztea izanen da (Cf. Pagola 2006). Beraz, Lazarragaren perfektiboaz mintzatzean, eskuizkribuan ageri diren formez ari gara, ez Lazarragak berak baliatuko zitukeenez.

d) biurrtu libertadea eguidaçu / alegueratu didin ene gogoa (Laz 32)

Bistan denez, denetarik dugu: a) +Adoin. +PZ; b) +Adoin. -PZ; c) -Adoin. +PZ; d) -Adoin. -PZ. Beraz, aditzoinaren edo partizipioaren erabilera guri dagokigun perfektibo zaharraren ikerketatik kanpoko kontua da, eremu zabalagoa hartzen du, halere, zer edo zer gehiago aipatuko dugu honi buruz, PZren parte den aldetik.

Lakarrak bere artikuluan esan bezala (1986: 666), -tu partizipioak eta -i partizipioak kronologia diferentea dute, ez dira berdin sartu aditzoina ordezkatzeko garaian. Lazarraga horren erakusgarri da. Lakarraren uste bat da, nik Lazarragarekin berretsi duguna, lehenik -i/Ø oposaketa galdu zela eta gero -tu/Ø, hau da, jatorriz aditz oina eskatzen zuten aditz forma guztiek -i partizipioa agertzen zutela, oraindik -tu/Ø txandaketa auki genezakeenean. Hau bitxia iruditu dakiguke, kontuan izanik -i -tu baino zaharragoa dela, pentsa baitezakegu -tu partizipio gisa sartu zenean oraindik -i/Ø oposaketa bazegoela, gerora -tu/Ø oposaketa gertatu baita. Baina honek azalpena badu. Kontuan har momentu batetik aurrera -tu partizipioa dela emankorra den bakarra, aditzak sortzeko balio duen bakarra. Hori hala izanik, -i partizipioek partizipio izaera galtzea erraza da, morfema hori aditzaren parte izatera pasatuz, eta hiztunak hor partizipio bat badelako susmoa galduz. Dena den, ez da Lazarragarengan partizipioaren kontzientzia erabat galdu, ez baititugu *ekar(ri)tu edo *ikus(i)tu bezalako berrinterpretazioak aurkitzen. Beraz, kronologia erlatibo bat ezar dezakegu mendebaldeko hizkerentzat:

$$-i/\emptyset -tu/\emptyset > -i -tu/\emptyset > -i -tu$$

Bigarren faserako beraz, -i partizipioa iharturik dago, ez da emankorra eta aditz zenbaitek daramaten elementua baino ez da. Lazarraga zein fasetan dago? dakusagun. PZ eraikitzerakoan, -i partizipiodun hitz guztiek partizipio maka badute: *ycasi, jarri, jarri...*, ordea, -tu partizipiodunetan txandaketa mantentzen da, aditz bereberekin gainera: *arr* vs. *arrtu*, *adi* vs. *aditu*, *biurr* vs. *biurtu...* gauzak horrela, -tu partizipioa agertu edo ez agertzeko arrazoiak zeintzuk diren aztertu behar dugu.

Hasteko, deigarria iruditu zaigu PZn erabilitako *ezan erroko adizki guztien aditz nagusiek aditz oina hartzen dutela. Ez dugu *biurtu nečan bezalakorik. Honek nire ustez, gerora azalduko dugun uste bat bermatzen du (cf. 2.2.2.), alegia, *ezan erroa *egin* erroa baino lehenago zegoela aditz sisteman, ez baitu partizipiorik hartzen. Tamalez datu basean ez dut -i partizipiodun eta *ezan errokun formarik, hauekin zer gertatzen den ikusteko. Gainera, *egin* erroko forma guztiak partizipiodunak dira, berriagoak nire ustez eta geroxeago esanen dugun bezala (cf. *ibid.*), baliteke jada *egin* erroko formak perfektibo zaharrekoak ez izatea, baizik eta perfektiboa egiteko modu bakarra (erregutu eguion=erregutu zion≠erregutu=ziezaion), partizipioduna jadanik, gaur egun bezala. Soilik *egin* erroko forma bat ez da partizipioduna: *solas daigun* (Laz 21), halere, horrek bere azalpena izan dezake, perifrasi modura ulerturik (solas *egin*).

*edin erroa da bihurriena, denetarik baitu bere baitan. Aditz nagusia laguntzailearen ondotik doanean, egitura ezezko eta hiperbatikoetan, ematen du Lazarragarentzat ez dela zilegi partizipioa baizik, datozen adibideek frogatzen diguten bezala:

(2)

a) Silveroc leen esan dogun bervaoc ençun eguianean çidin andiro enojadu (Laz 11)

- b) *ecusiric bada Silviagaz eoçen arçaiac egoala negarrez çiteçen espantadu* (Laz 10v)
- c) *Aren aldean jasarri ninçan / çerren ez lidin uçatu* (Laz 26)

Beraz, ez dugu Lazarragarengan **çiteçen espanta* bezalakorik aurkituko. Hori da **edin* erroaz baieztatu dezakegun gauza bakanetakoa, denbora eta adibide faltagatik ez baitugu beste ondorioz ateratzeko aukerarik izan. Hori bai, bada aditz oina edo partizipioa baliatzen bultzatzen duen zerbait, ez baita txandaketarik ikusten oro har. Tamalez **edin* erroaren afera guztiz borobilduta utzi gabe, itxi dezagun partizipioa eta aditzoinaren atal hau.

2.1.2. ERROAK

PZn aditz trinko zein perifrastikoak ditugu, jakina. Perifrastikoen erroez jardungo dugu lehenik. Pentsatzekoa denez, laguntzaile dinamikoak sortzeko baliatzen ditugun erroak agertuko zaizkigu, hots, **edin*, **ezan* eta *egin*. **edin* aurkitzen dugu Lazarragarengan aditz iragangaitzekin, eta eskuizkribuan errorik baliatuena da, gauza arrunta, aditz iragankorrak **ezan* eta *egin* erroen artean banatuak baitaude.

Auzi garrantzitsuagoa da **ezan/egin* txandaketarena. Bi erroak aditz iragankorretako formak eratzeko baliatzen dira. Normalean **ezan* ekialderako eta *egin* mendebalderako gordetzen ditugu, baina honek ez du esan nahi **ezan* erroko aditzik ez dagoenik mendebaldeko euskalkietan. 1638ko *Domingo Heguiari kantuan* esaterako, «*ecardeçan*» badugu (Arejita, A. 1988), edo «*layguicidi naguia erracizan vria*» *Refranes y Sentenciasen* 294. erranairuan (Urquijo, J. 1932). Baina **ezanen* ordez *egin* gailendu da mendebaldean, *dezan=da(g)ien* bezalakoetan. Lazarragak, esan bezala, bai **ezan* bai *egin* du, eta ez da autore bakarra: «*Eztauqueçanac, pocic, gogoac içan dagueiçala*», «*ecardeçan*» testu berean aurki daitezke XVII. mendean (*ibid.*) beraz interpreta genezake **ezanen* bidez eratutako formak zaharragoak direla *eginen* bidezkoak baino, eta *egin* **ezan* ordezkatzen joan dela. Horretarako bi argudio: lehenik, **ezan* erroa euskararen eremu guztian aurkitzen dugu, baita mendebaldeko euskalkietan, erakutsi dugun bezala, *egin* aitzitik, mendebaldean soilik nagusitu da. *Partizipioa edo aditzoina?* atalean (cf. 2.2.1.) bigarren argudioa aurkeztu dugu jada.

Esana geratzen da beraz, mendebaldeko testuetan zenbaitetan autore berak bai *egin* bai **ezan* duela. Lazarraga haratago doa halere, adizki bera bi erroekin topa baitezakegu: «*ycasi nic daguidan çugan dana*» (Laz 32v) eta «*artean barriz goza deçadan / oraingo libertadea*» (Laz 42v). Pentsatzekoa da halere, ikerketa sakonagoen faltan, *egin* errokoak hain zuzen subjektuaren borondate aktiboa eskatzen duela, hau da, ikasteko borondatea, besteak ordea ez. Dena dela, **ezan* erroko gainontzeko formek hartzen dituzten aditz nagusiek ere borondate hori eskatzen ahal dutela ematen du: *rrepara, conta...*

Amaitzeko, baieztapen bat egitera ausartuko nintzateke, bide batez **ezan* erroak aintzintasun handiagoa duela bermatzen duena nire aburuz. *Egin* erroko forma guztiak ez dira PZ eratzeko erabiltzen. Lazarragaren testuan, denak dira subjuntiboak, inperatiboak... soilik konplementatzailea edota Nori duten adizkietan aurki dezakegu *egin* erroko perfektiborik: «*al eguian cortesia eta mesura guztiaz*» (Laz 5v) hemen erlatibozko konplementatzailea du, «*eguion erregutu leguiola conpania*» (Laz 5v) eta

honetan Nori pertsona (hari). Nik esanen nuke halere, adizki hauek jadanik ez direla PZk baizik eta perfektiboa sortzeko modu bakarra, Nori-dun edo konplementatzailedun adizkietan (cf. Lakarra 1986: 656-658).

2.1.3. ADITZ NAGUSIA

Dakusagun orain perfektibo zaharra zein aditz nagusirekin agertzen zaigun. Izan ere, pentsatzekoa da forma arkaizantez ari garela, soilik aditz zaharrenekin, menturaz mailegu ez direnekin agertuko zaigula PZ.

Datu basea begiratzen dugularik, ikusten dugu dudarik gabe *joan, jagui, jaiio, ygaro, jarri, jasarri* etab. bezalako aditzekin PZ agertzen zaigula, nolabait aditz zaharrak lirakeenak dira hauek, ez baitira erromantzetiko maileguak eta morfologikoki zeresan garrantzitsua baitute euskararen berreraiketan (adb.: *igaro* vs. *igaran*, etab.). Baina honek baditu bere faltak, izan ere, esaterako –tu partizipiodun aditz askok ere PZ baitarabilte: *escatu, biurtu, yllundu...* jakin badakigu horrelako aditz zenbait adjektibo zaharraoetarik heldu direla, baina jadanik aditz –tu partizipiodunak ziren PZrekin elkartzean. Are gehiago, mailegu erromantzeak ere zilegi dira perfektibo zaharrenekin: hortxe ditugu esaterako *espantadu, enojadu* eta *asesta*, esaterako.

Dena delarik, aitortu beharra da gehienak aditz zaharrak direla PZdunak, honek ez du esan nahi jakina, aditz zaharrok bakarrik perfektibo zaharrenekin agertuko zaizkigunik, aise aurkitzen baitira *joan çan* (Laz 5, 49v), *jagui çan* (Laz 29), *jaiio cirean* (Laz 25), *jarri çan* (Laz 9v) eta abar. Joera bat badateke halere, aditz zaharrek PZ erabiltzekoa.

2.1.4. ADITZ LAGUNTAILEA

Jadanik aipatu ditugun erroek jakina, adizki laguntzaileak eratzen dituzte morfema anitzen bidez. Bada gauza pare bat esateko adizki hauei buruz. Besteak beste Lakarrak (1986: 661) aipatzen duen fenomeno bat nahi genuke aipatu. Lazarragak, erdi mendebaldean ezaguna den bezala (Bizkaian batez ere), **edin* erroan asimilazioa egiten du beti, *edi>idi* bilakatuz, hortaz, gure autoreak horrelako formak eratzen ditu: *çidin, didin, nindin...* baina ez da *adi>idi* asimilaziorik, *nadin* dugu, eta ez **nidin*, horrek frogatzen duelarik *didin* eta *didila* bezalako aditzak *dedin* eta *dedila* bezalakoetatik datozkeela, eta ez zuzenean bederen, *dadin* eta *dadilatik*.

Lehenaldiko aditzek ez dute Lazarragaren testuan iraganeko marka datekeen –n galtzen, mendebaldeko zenbait autoretan ikus daitekeen gisan. Lazarragak –nak baditu iraganeko formetan, aurreko paragrafoetako adibideek argi darakusten gisan. Oso urriak dira testuan sudurkarien galerak eta horren errepresentazio grafiko bakanak aurkitu ditut testuan. Bat 51. folioan dago, *jācita*, baina Pagolak (2006) behin eta berriz esaten duen bezala, folio hori Lazarragak ez, baina Sasiolak idatzi zuela onartzen, ez da adibide baliagarria. Beste adibide bat *morrōe* dugu, 25. folioan, non badakigun sudurkari bat badela edo izan zela. Edonola ere, guri interesatzen zaizkigun aditzetan ez dira atzematen.

Aipagarria da Lazarragaren pluralgilearekin kontutxo bat datu baseak aztertuz behatu duguna, eta aipamen gisa besterik gabe ekarri nahi izan duguna. *Citeçen, diteçen* edo

guindiçen bezalako adizkietan, ç grafemaz idatzitako morfema bat dugu, Nor pluralari dagokiona, nolabaiteko pluralgile pleonastiko bat, -it- horrekin batera. Aipatzekoa da Lazarragak berau erabiltzen duela erdialdeko hizkeretan bezala, mendebaldeko hizkeretan *çitean* aurki daitekeelarik, pluralgile hori gabe, Isastiren 81. errefracuan kasu: «Vnaiac aserra citean, gaztac aguer citean. Los baqueros riñieron, los quesos parecieron» (Michelena 1990: 180).

Gaur egun **edin* erroak aditz ez iragankorren adizki laguntzaileak eratzen ditu eta **ezanek* iragankorrak. Datozen adibideetan ikusiko dugunez, Lazarragaren kasuan ez da gaur egungo moldea baliatzen:

(3)

- a) [Silvero] joan çidin Sirenaren aurrera (Laz 12)
- b) escatu çidin arpa bat çeña utra dulçero jaiten asi çan (Laz 5v)


Ikusten ahal denez, *çidin* horrek aditz iragankorra zein iragangaitza hartzen ahal du, b)-k objektua eta guzti dakarrelarik. Ez gara ari bizkaiera zaharrean (baita Lazarragagan ere) dagoen numero komunztadura faltaz, esaterako, «Pelicanooc amorioz / umeac daguianean / bere odolaz manteniçen **dau** / guztiac açi artean» (Laz 32v), adibideotan pertsona komunztadura da falta duguna.

Laguntzaileaz mintzo garelarik, honetan ematen diren fenomeno morfonologiko batzuekin bukatu nahi genuke. Batik bai *eguin* erroaren bokalarteko belarraren erorketa eta geroko /i/ren palatalizatze eta beraz kontsonantizatze prozesua aipatu nahi nuke. Honen erakusgarri adizki bat aipatuko dut, hiru eratara aurki daitekeena: *daguigun* (Laz 32v), *daigun* (Laz 21) eta *daygun* (Laz 44v). Ez da sobera hizkuntzalari jantzia izan behar, hiru adizkiak kronologikoki antolatu nahi baditugu, horrelako bi aukera proposatzeko:


(4)

- a) *daguigun* > *daigun* > *daygun*
- b) *daguigun* > *daigun/daygun*

c)



d)



a) eta beste modu batean c) eskeman dioguna, zera da: *eguin* erroaren belarra galdu delarik, bi grafia ditugula diptongoa adierazteko, bat i eta bestea y. b) eta c)-n ordea, belarra galduta hiatus bat izan zela postulatu genuke, eta gero diptongatuko litzateke, bokal hori erdi kontsonante bilakatuz. Segur aski Lazarragaren garaia trantsizio gara da alor honetan, eta belarra galbidean dago, horregatik dugu aniztasun grafiko eta morfonologiko hori. Beste atal batean azaldu dugun bezala (cf. 2.1.2), jatorrian PZk

eratzeko baliatzen zen *eguin* erroa perfektibo modernoa egiteko modu bakarra bilakatzen ari zen **ezaneko* formak eta *eguin*eko batzuk fosilizatuak utziz. *Eguin* horrek eduki semantikoa eta PZrako jatorrizko balioa galdua, aipatutako erorketak gertatzea aisa da.

2.2. ERABILERA

Zein da beraz, perfektibo zaharraren erabilera? Zein testuinguru semantiko edo sintaktikotan agertzen da?, Izan ere, Lazarragaren eskuizkribuan berdin aurki ditzakegu *joan çan* eta *joan çidin*, gaur egungo perfektiboa eta PZ. Badira honen inguruan teoriak.

2.2.1. IRIGOIEN, KRUTWIG ETA ALDAIREN TEORIAK

Irigoienen liburuan (1985: 8) irakurtzen dugu Krutwigek hau dioela:

(...) Con el AORISTO se quiere expresar una acción que está desconectada de lo que está sucediendo, o de lo que se ha memorizado por experiencia. Se trata de una afirmación que representa conocimiento abstracto, por tratarse de una ley, por tratarse de algo que ha sucedido mas allá del horizonte de la perceptividad o de la memorización, algo así como una verdad universal.

Así, por ejemplo, una frase como **Jesus Khristos gurutzean' hil zen** la pudieron haber dicho sus discípulos inmediatos..., pero nosotros tenemos ya que decir en realidad **Jesus Khristos gurutzean hil zedin**, (...)

Batez ere Leizarragaren obra baliatzen dute hau frogatzeko. Ez dugu orain hori hala den frogatzeko beharrik, bai ordea, Lazarragarengan betetzen den jakiteko premia. Horretarako, ikus ditzagun adibideok:

(5)

- a) **joan çan** jauna / diçipulooc arturic / afaritan / maia bedeycaturic / nun esan eusten / guztiay berba jaguinic / eben dago / ni naucana salduric (Laz 49v)
- b) **jagui çidin** / afaritarean tristeric (Laz 49v)
- c) guero **joan çan** / guztiay ala echiric (Laz 49v)
- d) Nic au onela nesonean / goratu eben burua / jagui guindiçen arerean / puntu arrtaric bertarean / **yllundu çidin** çerua (Laz 47v)

Lehen hiru adibideak Azken Afariaren kontaketa bertsuak dira, nolabait ere juglare batek entzuleari afari horretan zer gertatu zen kontatzen dio. Juglarea afari horretan egon izan balitz, kasu horretan soilik erabiliko lituzke forma perfektibo berriak Krutwigen ustez. Pentsatzekoa da halere bertsolariak afari horren berri ematen duela aspaldi gertatutako kontua bailitzan, hortaz perfektiboa baliatu beharko luke. Ikusten duguna zera da, Jesukristoren ekintzak kontatzeko bai perfektua bai perfektiboa aurkitzen dugula bertso horietan. Gainera, d) adibidea Lazarragaren poema autobiografiko batetik hartua da, ez luke Krutwigen arabera perfektiboa baliatu behar. Aipatu dugun hipotesia Lazarragarengan betetzen ez dela agerian dago beraz.

Irigoienek oster, esaten digu Aldai (1998: 382) lanean irakur daitekeen gisan, perfektibo berria badela Leizarragaren obran, baina usuen menpeko perpausetan ageri direla. Lazarragarekin zer gertatzen da? ikus ditzagun adibideak:

(6)

- a) Silviac au ençun eguianean desmayaduric **erori çan** çenagana **joan çidin** laster Dorido (Laz 12)
- b) egun bat cunpliçacaric / oyta **jagui çan** / su ori utra fortiçic (Laz 48)
- c) utra espantaduric **jagui çidin** (Laz 13)

a) adibideak argi uzten du perfektibo berria esaldi nagusian ageri zaigula eta zaharra menpekoan. *Jagui* aditzarekin aldiz, biak perpaus nagusiak izanik, bietarik aurki dezakegu. Ez da betetzen beraz, Irigoienek Leizarragarentzat ondorioztatutakoa, ez sistematikoki bederen.

Aldairen artikuluak ordea, nagusiki hipotesi bat plazaratzen du (1998: 380-381). Euskarak pluskuanperfektua adierazteko, (gazt. *había hecho*) ez du forma berezirik, baina egungo perfektiboak balio pluskuanperfektua izan dezake. Aldaik honako adibidea dakar: «zu ikusi nahi zintudan, baina esan zidaten etxetik *irten zinela*», non perfektibo hori gaztelaniaz *habías salido* izan daitekeen. Bestetik, oraingo perfektiboaren egitura morfologikoa perfektuarena da, aditz nagusiak aspektu burutua baitu eta laguntzailea perfektua baita. Hau esanik besteak beste, Aldaik defendatzen du gaur egungo perfektiboak (*etorri nintzen*) balio pluskuanperfektua lukeela (gaur egun *etorriA nintzen* bezalako egitura berrien bidez egiten duguna) Erdi Aroan, eta perfektiborako gaur egun subjuntiboko formak direnak baliatuko lirakeke. Gerora pluskuanperfektu zaharrak PZren lekua hartuko luke, gaur egungo egoerara ailegatu arte. Beraz, Lazarragaren garaian pluskuanperfektu zaharra (*joan zen*) perfektibo zaharraren lekua hartzen ari zen, perfektiborako bai forma berriak bai zaharrak aurkitzeraino. ikus dezagun Lazarragak zer egiten duen, ea gaur egungo perfektiboaren bidez eginik diren formek pluskuanperfektu balioa duten.

Hau irakur daiteke eskuizkribuan: «tristeza andiaz Silvero **joan can** (sic) bere aposentura nun **asi çan** llantu andi bat eguiten ain tristeza andiaz eçe ençun eguien guztiai emun eioan tristeza andia» (Laz. 5). Perfektibo hauek berriak dira, gaur egungoen gisakoak, ez dute pluskuanperfektu izateko aukerarik, iraganeko kontaketa bat baita hurrenkera kronologikoan. Adibide honek ere gauza bera agertzen du: «donzella urac ecusenean / ala determinaduric / **acojidu çan** sagradura / arrc emun baga colperic» (Laz. 46); ez da hau pluskuanperfektua izaten ahal. Beraz, eta hau ikusirik, forma bat edo bestearen erabilera zehazteko hipotesi honek *bakarrik* ez du balio. *Bakarrik* diogu, egia delako zenbait kasutan Aldairen ustea betetzen dela, baina bada beste zerbait erabilerak baldintzatzen dituena.

Nahi genuke bide batez, Aldaik esandakoa borobilduz aipamen bat egin. Micoletak 1653. urtean idatzitako gramatikan zera aurkitzen dugu (1897: 5):

(7)

	Preter ^o perf ^o sing.	Preter ^o plusquam perf ^o sing.
Iragankorra	Yo hize-nic eguindot	Yo hauia hecho- nic eguin eguiian
Iragangaitza	Yo fui- ni ysan nax	Yo hauia sido- ni ysan ninsan

Honek Aldairen kontra eta alde egin dezake. Esan dugu, pluskuanperfektu zaharra *joan zen* bezalakoa litzatekeela. Horren froga pluskuanperfektu iragangaitzean aurkitzen

dugu, iragankorreen aitzitik, *eguian* dugu, eta morfologikoki perfektibo zaharraren egitura du, *egin* erroaren bidez sortua, beraz iragangaitzean *joan zen* eta iragankorreen *egin nezan* esan beharko genuke Mikoletaren ustez. Gainera, iraganaldi perfektua sortzeko ez da perfektibo zaharra erabiltzen, bai ordea pluskuanperfektu iragankorrerako. Honek antza, Aldairen kontra eginen luke, baina ez guztiz, azalpena izan baitezake. Gramatika honek Aldaik esplikatzen duen eboluzioaren tarteko urrats bat islatuko luke. Gramatika XVII. mendekoa da eta euskalariak bat datoz ordurako perfektibo zaharra galduta edo galzorian zela. Arrunta da beraz, *yo fui-ni isan nindin* bezalako zerbait ez izatea. Perfektibo zaharra galtzean, inguruko hizkuntza erromantzeetan perfektuko formak direnak (cf. fr. j'ai lu=gazt. he leído=eus. irakurri dut) euskarak ere baliatzea; hortaz, oraindik ez du pluskuanperfektu zaharrak perfektibo zaharraren lekua hartu XVII. mende honetan, Mikoletaren gramatikan bederen. Are gehiago, pluskuanperfektu zaharra oraindik mantentzen da aditz iragangaitzetan. Orduan, zergatik dugu perfektibo zahar bat (eguian) iraganaldi pluskuanperfektu iragankorraren tokian? Bururatzen zaidan aukera bakarra hau da. Oraindik perfektibo zaharra (*etor çidin*) erabiltzen zenean, mendebaldeko euskalkiak *egin* erroa erabiltzen hasi ziren iragankorretan, **ezan*-en ordeztan (*ekar nezan/negian*). Perfektibo zaharra galtzean *egin* erro hori aditz perfektibo modernoak egiteko atxiki zen, bere balio arkaikoa galduz. Gauzak horrela, gaur egun mendebaldean *esan ne(g)ion* aditzean *esan nion* ulertu behar dugu eta ez *esan niezaion* (cf. Gaminde 1987: 21).

2.2.2. PERFEKTIBO ZAHARRA DEFEKTIBOA DA

Aldaik gramatikalizazioaren teoriaren arabera perfektibo zaharra aski hedatua egotetik galtzerako bidea azaltzen digu bere artikuluetan (1998 & 2006). Hori onarturik, Lazarraga tarteko egoera batean kokatu beharra dugu, hau da, perfektibo zaharra eta berria sinkronian bizi izan diren garaian. Baina nola islatzen da Lazarragaren testuan bi perfektiboen borroka hori, eta are gehiago, perfektibo zaharraren gailentze hori? PZrako erabiltzen diren adizki laguntzaileei begiratu bat botatzea baino ez dago. Perfektibo zaharraren paradigma Lazarragaren testuan zinez defektiboa da. Perfektibo zaharra soilik zenbait pertsona eta numerorekin agertzen zaigu, azpiko taulak erakutsi bezala. Errook sortzen dituzten gainerako adizkiak edo subjuntibo edo agintera edo helburu zentzua dute.

(8)

	*EDIN		*EZAN		EGUIN	
	Nor	Nor-Nori	Nor-Nork	Nor-Nori-Nork	Nor-Nork	Nor-Nori-Nork
Iragana	<i>nindin</i> (ni) <i>çidin</i> ⁴ (hura) <i>çiteçen</i> (haiek)		<i>Neçan</i> (Nik-Hura)			<i>eguion</i> ⁵ (Hark-Hari-Hura) <i>eioan</i> ⁶ (Hark-

⁴ Esan dugun bezala (cf. 2.1.4.), *çidin* ere iragankorra izan daiteke.

⁵ Oroit, gure ustez forma hauek segur aski jadanik PZ kutsua galdu dutela eta perfektiboa egiteko modu bakarra direla, horregatik ez ditugu forma guztiak bildu.

⁶ Edo HAIEK-Hari-Hura. cf. gainerako oharra ere.

	<i>guindiçen</i> (gu)					Hari- Hura)
--	--------------------------	--	--	--	--	----------------

Taula argigarria da. Gure ustez *eguin* erroko formak jadanik perfektibo berrirako baliagarriak direlarik, erro bakoitza pertsona baterako soilik baliatzen da PZ sortzerakoan (ez beste erabileretan, non *eguine* esaterako Nor-Nork erako erabilerak badituen), gauzak horrela, **edinek* Nor erako PZk sortzen ditu, **ezanek* Nor-Nork erakoak eta *eguine*ek. Beraz, ez dugu PZ balioarekin **nieçaion* edo **çequidan* bezalakorik aurkituko (beste balioekin akaso bai). Hortaz, “Hark hura egin zuen” PZ erabiliz esan nahi badugu, “Hark hura egin zezan” esan beharko genuke, baina Lazarragak ez du **çeçan* bezalakorik bere PZko aditz paradigmak, eta horrelako esaldia topatzen dugu beraz «eta ala eguin eben» (Laz 9v). Honek jakina, Lazarragaren garaian perfektibo zaharra galbidean zelako hipotesia berresten du.

2.2.3. ERABILERA MUGATUA

Ikusi dugu defektibotasuna dela-eta, PZ ez zaigula agertu behar lukeen testuinguru guztietan agertzen, baina badira berorren erabilera mugatzen duten beste faktore batzuk, denborarekin zerikusia dutenak. Aipatu ditugu Aldairen eta Irigoienek hipotesiak, eta Lazarragarekin guztiz bederen betetzen ez zirela ikusi dugu, dena dela, bi egileek zabaldutako bideak badu zerikusia Lazarragaren joerekin. Datozen adibideetarik saia gaitzen argi pizar bat ateratzen.

(9)

- a) Artu **eben** biguelea eta utra boz amorosoaz **asi çan** manera onetan cantaeta (Laz 3v) asi, iraupena
- b) al eguiian cortesia eta mesura guztiaz saludadu **çituan** eta escatu **çidin** arpa bat (Laz 5v)
- c) aec ondo **beguiratu orduco** salvaje biac arrebatadu **çituen** (Laz 13)
- d) joan çidin Sirenaren aurrera nun belaurico jarri **çan** (Laz 12)
- e) yramo eben aiñ furia andiaz **eçe** utra pedaçu asco eguin **çan** (Laz 5)

Lehen adibideak, a)-k oso gauza argigarria esaten digu. Lehen aditzak, *ebenek*, ez du PZren paradigmak ordainik, beraz Lazarragak ez du PZ baliatuko adizki hori erabiltzean. Bigarren aditzarena interesgarriagoa da: testuan ez dugu *asi*+PZ egiturarik topatuko; «arturic biguela bat asi çan cantaetan» (Laz 6v) bezalako esaldi batek PZ eskatzen duela ematen du, baina ez du hori erabiltzen. Segur aski *asi* aditzaren eduki semantikoak baldintzatzen du partizipio zaharraren erabilera, aditz horrek berez denboran iraupena duen prozesu bat irekitzen duelako, akaso bukaerarik ez duena, eta ez da hori PZren erabilpen eremua. b)-k ere argi erakusten digu *çituan* adizkiak, hots, Hark-Haiek motako aditzak ez duela PZren paradigmak lekurik, horregatik perfektibo berria da, ez ordea aditz horrekin emendiozko harremanean dagoen *çidin*. c) esaldian Aldairen ustearen aldeko argudioa dugu. Lazarragak ez du *çituen* erabiltzen, *even* baizik⁷, baina honetan esaldiak esanahi pluskuanperfektu garbia du, gaur egun aditz nagusiari artikulua erantsiko geniokeelarik, pluskuanperfektu zentzu hori emateko.

⁷ Adizki hau sinkretikoa da, hainbat pertsonekin baliatzen du.

Ausar ninteke konplementatzailea hartzen duten adizkietan ez ohi dela PZ agertzen, nahiz eta hau ez den baieztapen kategorikoa. d) adibideak hori pentsatzera garamatza, *çan* horrek konplementatzaile marka ez-agerikoa baduela, «nun ultra catea andiacaz daucan» (Laz 13v) esaldian ordea ikus dezakeguna. Gauza bera esan genezake e)-ri buruz ere. Baina ordun zergatik ditugu horrelako esaldiak? «Silviac urten eben arean **nun** Silvero gueratu **çidin** baco chic» (Laz 6-6v) eta «**eçe** Silveroen ugaçaba eta agaz eoçen guztiac **çiteçen** espantadu» (Laz 7). Bada, menpekoekin Lazarragak txandaketa baduelako, ez dutelako beti konplementatzailea hartzen, adibide hauek erakutsi gisan: «**Nun** bere baita asco dago_ enetaco doloreric» Laz 36), «ain da nic deusadan amorioa andia **eçe** neure erriari ychiric nator_ aen esque» (Laz 10v). Konplementatzaileekin PZ agertu ez arren, posposizioekin ez da gauza bera gertatzen, *sar çiteçenean* bezalakoak ohikoak (eta akaso modu bakarrak) baitira.

Hauek esanda, erabileraren aldetik irregulartasunak badaudela gehitu beharra dago, dudarik gabe, perfektibo zaharraren galera progresiboak zenbait kasutan txandaketak gertatzeko bidea hartu du, eta esaterako *joan* aditzarekin bi perfektiboak, zahar eta berria, aurki daitezke, nik aurkitu ez dudan irizpideren bat egon daitekeelarik apika. Dena den, nahiko erregularra da PZren agerpena eskuizkribuan, ia folio guztietan daude bizpalau adizki, baina deigarria da gutxi gora behera 14. foliotik 25.era ez dela formarik topatzen. Ha jakina, berezitasun gisa aipatzen dugu, testuaren nolakotasunak perfektibo zaharrik behar ez duelako gerta baitaiteke besterik gabe hutsune hau, esaterako, zati handi bat orainaldian kontatzen da tarte horretan, eta beste zati bat gaztelaniaz dago.

3. ONDORIOZ

Orain are esandakoa esanda, ongi edo gaziki, baina esanda, laburbiltzeko unea heldu da.

Aldai izanik honen inguruan gehien ikertzen ari den hizkuntzalaria eta eman dituen argudioak kontuan izanik, *perfektibo* hitza hobetsi dugu lan honetan beste hizkuntzalari batzuek *aoristo* izendatu dutenari deitzeko. Dena dela, ez zait irudi (ezta Aldairi ere) *aoristo* terminoa okerra denik, hori bai, grekeratik hartua izanda, ez dira grekera zaharreko aoristoa eta euskararena nahasi behar.

PZren morfologian sartuz, aditzoina eta partizipioaren auzia aipatu dugu lehenik. Ematen du beraz, Lazarragaren garairako *-i* partizipioa guztiz sartua dago PZn eta erroen arabera ugariagoa edo urriagoa da partizipio edo aditzoinaren erabilera, **ezan* delarik aditzoinerako joera duena, eta *eguin* partizipiorakoa. Dudarik gabe, **edin* da nahas-mahas handiena duen erroa, no aditz nagusi eta laguntzailearen hurrenkerak besteak beste eragina baduen. Erroez solastean **ezanek* kutsu zaharragoa duela defendatu dugu, eta *eginen* PZk sortzeko aukera eza, perfektiborako modu bakarra dela esanez.

Aditz nagusia aipatu dugularik, perfektibo zaharra aditz mota gehienekin agertzen zaigula ikusi dugu. Horrek egitura zaharrak Lazarragarengan duen emankortasun maila neurtzeko laguntzen digu. Izan ere, PZ soilik aditz zaharrenekin edo soilik aditzoinarekin agertuz gero, jadanik PZ iharturik zegoela pentsatuko genuke. Baina mailegu eta aditz berriagoekin ere badugu, hortaz, PZ galbidean bazegoen ere, oraindik

emankorra zela ikusten dugu, *enojadu* eta *espantadu* bezalako aditz erromantzeekin aurkitzean.

Aditz laguntzailearen atalean *edin* erroan *edi>idi* asimilazioa konfirmatu dugu, ç pluralgileaz jardun. Gainera, Lazarragak mendebaldean ohikoa den numero komunztaduraz gain zenbaitetan pertsona komunztadurarik ere ez duela erakutsi dugu. Azkenik adizki beraren agerpen desberdinak baliatuz kronologia erlatibo bat aurkeztu dugu.

Erabileran sartuz, Irigoien, Krutwig eta Aldairen usteak Lazarragarekin bat zetozen behatu nahi izan dugu eta ikusi dugu bakar bat ere guztiz doitzen ez bazaio ere, Aldairen hipotesiaren aldeko hainbat adibide badirela. Mikoletaren gramatikan agertzen den aditz sistemaren zati bat ekarri dugu gurera, Aldairen hipotesiaren alde jotzeko neurri batean, eta perfektibo zaharraren galera frogatzeko.

Ondoren, Lazarragaren PZko aditz laguntzailearen paradigma defektiboa dela erakutsi dugu, hortaz, testuinguru semantiko edo sintaktikoak perfektibo zaharra eskatuko lukeen guztietan berau ez dela agertuko ikusi dugu, hain zuzen ere, soilik pertsona batzuekin eta erro batzuekin aurkitzen dugulako PZ.

Azkenik, perfektibo zaharraren erabilera oztopatzen duten beste faktore batzuen berri eman dugu, *asi* aditzaren kasua eta konplementatazailearen eragina aipatu ditugu besteak beste, halere, joerak baino ezin izan ditugu agertu, batzuetan salbuespenak ere egon daitezkeelako, edo gure begiei ihes egin dieten bestelako faktoreak.

Lan honen bidez Lazarragaren eskuizkribuko perfektiboaren inguruan argitasun pizar bat ekartzea edo sakonago ikertzeko bideak irekitzea lortu badugu, pozik gaude gure lanak emandako emaitzekin, ongi baibaitakigu ez dugula gai honek eman dezakeen guztiarekin inolaz ere bukatu.

4. BIBLIOGRAFIA

- Aldai, G., 1998. "A propósito del aoristo vasco", *FLV*: 79. Iruñea: Príncipe de Viana. 377-386.
- Aldai, G., 2006. "Lehenaldi perfektiboko formak XVI. mendeko euskarari" in Lakarra, Joseba A. & José Ignacio Hualde (arg.),. *Studies in Basque and Historical Linguistics in memoriam of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz*. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU (= ASJU XL: 1/2). 23-34.
- Arejita, A. (arg.), 1988. "Domingo Heguiari kantua. Textoa eta lexikoa", *Litterae Vasconicae. Euskeraren iker atalak* 4. 7-51.
- Euskaltzaindia, 1997. "78. Aditz laguntzaile batua", on line [kontsulta: 2007-08-29] www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0078.pdf .
- Gaminde, I., 1987. "Aoristoaren inguruan", *Enseiucarrean* 3. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo. 17-27
- Irigoyen, A., 1985. *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*. [s.n.] Bilbo.
- Lafon, R. 1980 [1944]. "B- Avec auxiliaire a valeur déterminée" in *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*. Elkar: Donostia. 76-78.
- Lakarra, J. A., 1986. "Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean", *ASJU XX*: 3. Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia. 639-682.
- Lakarra, J. A., 1996. "2.1. Aoristoaz", in *Refranes y Sentencias (1596) ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia: Bilbo. 177-179.
- Lázaro Carreter, F. 1968. "Aoristo" in *Diccionario de términos filológicos*. Gredos: Madril. 51.
- Michelena, L., 1990. *Textos Arcaicos Vascos*. EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- Micoleta, R. 1897² [1653]. *Modo breue de aprender la lengua vizcayna 1653 / compuesto por Rafael Micoleta*. [s.n.]: Sevilla.
- Pagola, R.M., 2006. "Lazarragaren eskuizkribua: grafiak, hotsak eta hitzak", *Oihenart* 21. Eusko Ikaskuntza: Donostia. 539-561.
- Perez de Lazarraga, J. ca. 1567. Eskuizkribuaren faksimilea. On line: <http://www.gipuzkoakultura.net/lazarraga/> [kontsulta: 2007-07-18].
- Perez de Lazarraga, J., Landa, I. (arg.) 2004. *Eskuizkribuaren transkripzioa*. On line: <http://klasikoak.armiarma.com/lazarraga/> [kontsulta: 2007-07-18].
- Perez de Lazarraga, J., Urkizu, P. (arg.), 2004. *Dianea & Koplak*. Erein: Donostia.
- Urquijo, J. 1392. "Los Refranes y Sentencias de 1596: Estudio Comparativo", *RIEV* 23: 2. Eusko Ikaskuntza: Donostia. 253-456.